

2005EKO URRIAREN 28KO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bosteko urriaren hogeita zazpian, iluntzeko zazpian, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi, Arantxa Zumelaga Agirre, Inazio Barandiaran Aldasoro, Amagoia Naldaiz Mingo, Kepa Goenaga Alikostes, Xabier Arrasate Aierbe, Gorka Lamy Insausti eta Angel Olaso Villalba.

Igor Sarriegi Zumarraga, Juan Manuel Serna Portugal eta Milagros Alvarez Novoa zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2005eko uztailaren 21ean egingako bilkurako akta.

Angel Olaso zinegotziak esaten du berak ez duela aktaren zirriborroa jaso.

Idazkariak esaten dio aktaren zirriborroa, uztailakoa izanik, aspaldixamar bidali zela eta Olaso zinegotziaren kasuan, beti egiten den bezala, bere alderdiaren egoitzara eramana izan eta han jaso zutenaren zurigarria idazkaritzan dagoela.

Bozketa egin eta akta, guztien aldeko botuekin, idatzita dagoen moduan onartzen da.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Angel Olaso zinegotziak aparkamenduko minusbaliatuen txartela ematerakoan eskatzen diren baldintzei buruz galdetzen du eta gizarte zerbitzuetako Zumelaga zinegotziak erantzuten dio, eskatutako argibideak emanez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- KIROLO BATZORDEKO BATZORDEBURUAREN ALDAKETA.-

Alkateak aditzera ematen du Igor Sarriegi Zumarraga zinegotziak Kiroletako Batzordeburu izateari uzteko bere nahia agertu duela eta hau horrela izanik, bere ordezkari

pa Goenaga Alikostes zinegotzia izendatuko duela Kirol eta Gazteria batzordeetako Batzordeburu berri gisa.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

IV.- HIRIGOIENGO BERRURBANIZAZIO LANEN LEHENENGO ZERTIFIKAZIOA.-

Hirigoiengo Birrurbanizazio lanen obra zuzendaritza daraman Iñaki Laskurain Gisa-sola ingineruak (INJELAN, S.L.) lanen lehen zertifikazioa luzatu du. Zertifikazio honen zenbatekoa HOGEITA LAU MILA HIRUEHUN ETA BAT EURO ETA LAUROGEITA HAMAZAZPI ZENTIMOtakoa (24.301,97 €) da.

Udal teknikariak zertifikazioa aztertu eta bere oneritzia eman dio.

Guzti honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Hirigoiengo Birrurbanizazio lanen lehen zertifikazio hau onartzea erabakitzen du.

V.- LAZKAO LANTZEN, S.A. UDAL ELKARTEAREN 2004KO KONTUAK.-

Jarraian bere onarpena aurkezten dira Osoko Bilkurara Lazkao Lantzen, S.A. Udal Elkartearen 2004ko ekitaldiari dagozkion kontuak.

Kontu hauek Lazkao Lantzen, S.A.ren administrazio kontseiluak onartuta daude, 2005eko apirilaren 19an egindako bilkuran.

Honen aurrean eta kontu hauek aztertu ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako guztien aldeko botuekin, berauek onartzea erabakitzen du.

VI.- 2004KO KONTU OROKORRA.-

2004 ekitaldiko Kontu Orokorra Kontuetaarako Batzorde Berezian aurkeztu zen, 2005eko irailaren 8an honek egindako bilkuran.

Ondoren jendaurreko erakustaldian jarri zen, iragarkia Udaletxeko iragarki oholean eta 2005eko irailaren 27ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zelarik. Jendaurrean egon den 15 lanegunetan ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Ondoren 2004ko Kontu Orokor hau berriro Kontuetaarako Batzorde Bereziak aztertu eta informatua izan da 2005eko urriaren 25eko bilkuran.

Hau honela, dagokion legeriak dioena jarraiki, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 2004 ekitaldiko kontu orokorra onartu egiten du.

VII.- ORDENANTZA FISKALAK.-

Alkateak, ordenantza fiskalen inguruan, 2006ko urtarrilean indarrean sartuko lirakeen aldaketen proposamenaren azalpena egiten du.

Orokorrean 2004ko abuztutik 2005eko abuztura Euskal Autonomi Erkidegoko Kontsumoko Prezioen Indizeak izan duen igoeraren pareko igoera, hau da, %3,2ko igoera planteatzen da ordenantza fiskaletan.

Salbuespen gisa, zabor bilketa zerbitzua eta ura eta estolderia zerbitzuak lirateke. Zabor bilketaren kasuan %5eko igoera planteatzen da. Uraren kasuan berriz honako igoerak planteatzen dira:

- etxebizitzetarako urean, finkoa %10a eta aldakorra %15.
- etxebizitzarako ez den urean, finkoa %10 eta aldakorra %20.

Bestalde honako hauek proposatzen dira baita ere:

- Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren, hirilurrean, %50eko hobaria ezartzea familia ugarien kasuan, interesatuak hala eskatu eta horretarako ezartzen diren baldintzak betetzen direnean. Baldintza hauek bere espedientean aurkitzen dira.

- Jarduera eta irekitze baimenen tasan atal berri bat sortzea baserriko ikuluak izenarekin. Honi buruzko gainerako xehetasunak bere espedientean aurkitzen dira.

- Baserrien kasuan eta ustiaketaren titularrak hori duenean jarduera bakartzat, %50eko hobaria aplikatuko zaio ustiaketari lotutako eraikin eta instalazioetan egindako obra eta espedientei dagokien obra tasa, zerga eta irekitze tasaren kitaketa egiterakoan. Baserrian etxebizitzan egindako obretan ez da aplikagarri izango hobari hau.

- Kiroldegiko tarifetan honako aldaketa hauek emango dira: urteko bazkidetza bakarra izango da, uztailetik ekaina artekoa; seihilabeteko bazkidetza sortzen da eta hemen bazkidetza hau egiteko bi aukera egongo dira: urtarilean hasi eta ekainaren amaiera artekoa edo uztailetik abenduaren amaiera artekoa.

- Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari dagokionean, minusbalituentzako aplikatzen den zergaren salbuespena eskakizuna errolda jendaurrean dagoen denboraldia amaitu baino lehen egin beharra ezartzen da salbuespena, erabakiko balitz behintzat, eskaria egiten deneko urtean kontsideratu ahal izateko, bestela hurrengo urterako utziko delarik salbuespenaren aplikazioa, eta salbuespen honen eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioan ibilgailuaren zertarako zehaztuz interesatuaren aitortpena gehitzen da. Honez gain gaur egun indarrean dagoen ordenantza, "Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren kuotak finkatzeko funtsezko elementuak erregulatzen dituen ordenantza fiskala" izeneko ezabatu egiten da eta "Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskala" izeneko sortzen da, aurrekoaren zehaztapen guztiak eta beste batzuk jasoz. Ordenantza hau bere espedientean aurkitzen da.

- Zergen kudeaketa eta bilketa eta tokiko herri zuzenbideko beste sarreraren ordenantza orokorra sortzea. Ordenantza hau bere espedientean aurkitzen da.

- Udal tasak ordaintzen laguntzeko ordenantza fiskala eguneratzen da baita ere dirusarreraren mugei dagokionean eta hau ere bere espedientean aurkitzen da.

Olaso zinegotziak (PP) esaten du bere ezadostasuna agertu beharrean dagoela eta aurreko urteetan bezala jarraitzen dugula eta ura eta zaborretan KPIaren oso goitik dau-

den igoerak planteatzen direla, eta defizita jeisteko egin den ahalegina oso garrantzitsua dela kontsideratuta ere, ezin diola onarpena eman igoera honi.

Estensoro zinegotziak, (EAJ) erantzuten dio esanez ura eta zaborren kasuan nondik gatozen kontutan eduki behar dela, oinarri oinarritzko egoera batetik gatozela, garai batean zaborrak bildu eta inolako tratamendurik gabe zabortegi batetara botatzen zirela eta ura ere, inguruko iturri guztiak agortu eta hala ere bakarrik ordu batzuetako zerbitzua ematea lortzen zela urteko garai txarrenetan. Gaineratzen du %10 edo %20ko igoerarena erlatiboa dela eta ura eta zabor bilketa zerbitzuen ustiaketa kostuak kontutan hartu behar direla eta gainera gutxien dezakeenentzako laguntzak badaudela eta esaten dio Olaso zi-negotziari bere jarrera demagogiko xamarra iruditzen zaiola.

Olaso zinegotziak erantzuten dio ez dela demagogia, ze zenbakiak hor daudela.

Guzti honen ondoren, gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko bedera-tzi botu (EAJ, EA) eta aurkako botu batez (PP), honako erabaki hauek hartzen ditu:

- 1.- Akordio honen azalpenean aipatutako ordenantza fiskalen sortze, aldaketa eta ezaba-tzea, haserako izaeraz onartzea.
- 2.- Akordioa jendaurreko erakustaldian jartzea hogeita hamar lanegunetako denboraldian.
- 3.- Jendaurrean dagoen denboraldian inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, akor-dioa behin betiko bihurtzat joko da akordio espreso berri baten beharrik gabe.

VIII.- LAZKAO LANTZEN, S.A.REN KAPITAL HANDITZEA.-

Lazkao Lantzen, S.A. udal elkarteak kapitala handitzea dihoa eta kapital handitze hori bere bazkide bakarra den Lazkaoko Udalak 1 Sektorean dituen lur eraikigarriak ema-nez egitea planteatzen da.

Gerora, lursail hauek izango lirateke, Lazkao Lantzen, S.A. udal elkarteak gun e ho-rretan nolabaiteko herri babesa luketeen etxebizitzak sustatzeko sortuko den kooperatiba-ri salduko lizkiokeenak.

Lazkao Udala, Arau Subsidiarioetako 1 Sektorean, eta izapidetutako birpartzelazio proiektuaren onarpenaren ondorioz, honako lur hauen jabe da:

EMAITZAZKO 1 ZBK.DUN PARTZELA

1.- Deskribapena:

Egoitza-finka urbanizagarria. 1.223m²-ko azalera du, eta 8.001m²-ko guztizko sabai apro-betxamendua dagokio, bizitegi, garaje eta merkatal erabilerekin.

Iparraldetik jabari publikoko lursailekin muga egiten du, Hegoaldetik emaitzazko 2 zbk.dun partzelarekin, Ekialdetik jabari publikoko lursailekin, eta Mendebaldetik ere jabari publikoko lursailekin. Aipatu finkan tasatutako etxebizitzetara zuzendutako 779,25m² erai-

ki ahal izango dira, etxebizitza libreetara zuzendutako 4.003,75m², etxebizitza tasatuei lotutako garajeetara zuzendutako 178,98m², etxebizitza libreei lotutako garajeetarako 2.267,02m² eta merkatal lokaletarako 772m².

2.- Hirigintz arauak:

Partzela honen titulartasunari atxikitako eskubide eta betebeharrak Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako eta 1. Sektoreko Zatikako Planeko zehaztapenek ezarritako muga barnean burutu beharko dira.

3.- Kargak:

Erabilera publikoko mirabetzaren karga izango dute eraikiko den etxebizitza berriko atari-peek, lurpeko aprobetxamenduen gainean kokatutako guneei eta sotorako sarbideei.

4.- Esleipena:

Lazkaoko Udala finka honen %33,00-aren domeinu osoaren titular da, Lazkaoko udalerriko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 1 Sektoreko Birpartzelazio Proiektuaren arabera, 2005eko ekainaren 27ko Alkatetzaren Ebazpen bidez behin-betikoz onartutakoa.

5.- Jarritako finkekin korrespondentzia:

Jarritako 3 zbk.dun partzelaren %16,70a.

6.- Hirigintz karga:

Hirigintz Kudeaketa Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoaren arabera, finka hau, izaera errealez, kooperazio sistemari atxikitako kargak betetzera eta gastuak ordaintzera behartua gelditzen da.

Finkak jasaten duen kargaren behin-behineko likidazioaren saldoa 1.025.899,18€koa da, eta Lazkaoko Udalari, bere %33ko partaidetzarengatik, 391.843,086€-ko kopurua dago-kio.

EMAITZAZKO 3 ZBK.DUN PARTZELA

1.- Deskribapena:

Egoitza-finka urbanizagarria. 1.233m²-ko azalera du, eta 4.349m²-ko guztizko sabai aprobetxamendua dagokio, bizitegi, garaje eta merkatal erabilerekin.

Alde guztietatik, Ipar, Hego, Ekialde eta Mendebaldetik jabari publikoko lursailekin muga egiten du. Aipatu finkan tasatutako etxebizitzetara zuzendutako 3.117m² eraiki ahal izango dira, eta garajeetara zuzendutako 1.232m².

2.- Hirigintz arauak:

Partzela honen titulartasunari atxikitako eskubide eta betebeharrak Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako eta 1. Sektoreko Zatikako Planeko zehaztapenak ezarritako mugen barnean burutu beharko dira.

3.- Kargak:

Erabilera publikoko mirabetzaren karga izango dute eraikiko den etxebizitza berriko atari-peek, lurpeko aprobetxamenduen gainean kokatutako guneei eta sotorako sarbideei.

4.- Esleipena:

Finka honen domeinu osoa Lazkaoko Udalari esleitzen zaio %100,00ean.

5.- Jarritako finkarekin korrespondentzia:

Jarritako 3 zbk.dun partzelaren %83,30a.

6.- Hirigintz karga:

Hirigintz Kudeaketa Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoaren arabera, finka hau, izaera errealez, kooperazio sistemari atxikitako kargak betetzera eta gastuak ordaintzera behartua gelditzen da.

Finkak jasaten duen kargaren behin-behineko likidazioaren saldoa 273.142,96€-koa da, eta Lazkaoko Udalari bere %100a dagokio.

Kapital handitze hau egiteko, handitze horretarako emango den lurraren balioztatzea egin behar da eta balioztatze hori Merkataritza Erregistroak izendatutako peritu batek egin behar du. Peritu horren izendatzea eskatuta dago baina balioztapena oraindik egiteko dago.

Guzti hau honela, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko bo-tuekin, honako akordioak hartzen ditu:

1.- Lazkao Lantzen, S.A. egitera dihoan kapital handitzerako, Lazkaoko Udalak, 1 Sektoren bere jabetzakoak dituen eta akordio honen aurrekinetan xehetu diren 1 lursailaren %33a eta 3 lursailaren %100a jartzea.

2.- Alkatea ahalmentzea Lazkaoko Udalaren izenean aipatutako lursailen titularitatearen ematea egiteko izenpetu beharreko dokumentuak izenpetzeko.

IX.- BERE BURUAZ BALIATZEN EZ DIREN PERTSONEN ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA EMATEKO UDALA ETA ALDUNDIAREN ARTEKO HITZARMENA.

Gizarte zerbitzuen arloan Eusko Legebiltzarraren 1996ko urriaren 18ko 5/96 Legeak, gizarte zerbitzuak herri erakundearen ardurapeko sistema integratuan antolatzen eta egituratzen ditu.

Lege hori garatzeko, Eusko Jaurlaritzak, 2001eko uztailaren 30eko 155/01 Dekretua eman zuen eta dekretu honetan xedatutakoaren arabera etxez-etxe laguntza zerbi-

tzua udalen eskumenekoa da eta bere buruaz baliatu ezin duten adinekoen arreta eta zaintza berriz foru aldundiena.

Hau horrela izanik, bere buruaz baliatu ezin diren adinekoen etxez-etxeko laguntza zerbitzuaren udalek ematearen inguruan Lazkaoko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena izenpetzea planteatzen da.

Osoko Bilkurak, hitzarmen hau aztertu ondoren, aldeko bederatzi botu (EAJ,EA) eta abstentzio batez (PP), honako akordioak hartzen ditu:

1.- Bere buruaz baliatu ezin diren adinekoen etxez-etxeko laguntza zerbitzuaren inguruan Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Lazkaoko Udalaren artean izenpetzea planteatzen den hitzarmena, bere espedientean aurkitzen dena, onartzea.

2.- Alkatea ahalmentzea Udalaren izenean hitzarmen hau izenpetu dezan.

X.- ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA ARAUTUKO DUEN ARAUTEGIAREN ONARPENNA.-

Jarraian Osoko Bilkuraren onarpenera aurkezten da etxez-etxeko laguntza zerbitzuaren udal arautegia. Arautegi hau EUDEL eta Gipuzkoako Foru Aldundiak idatzia eta adostua izan da eta lurralde guztiko udalerrietan onartzea planteatzen da eta helburua zerbitzu guztiek homogeneizatzea izango litzateke

Olaso zinegotziak (PP) esaten du arautegiaren zioen azalpenean, 3. paragrafoan, zerbitzu oso baten beharraz hitzegiten dela beharrei egokitzeko modukoa eta denboretan zatigarria eta larrialdiei erantzua bere gain hartzen duena, eta berak behar mota guztiei erantzutea bere gain hartzea jartzea planteatuko lukeela. Era berean 3. artikularen aldaketa planteatzen du.

Alkateak erantzuten dio esanez arautegiaren testua ez dela aldagarria, udalerri guztietan arautegi bera onartzea planteatzen delako eta gaineratzen du aurrez EUDEL-en eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintzan alderdiek adostutako testua dela.

Olaso zinegotziak esaten du gizarte zerbitzuetako batzordean eztabaidatu gabeko gaia dela eta gaineratzen du berak iradokizun hauek egin dituela sartu ahal bailitzatekeen.

Guzti honen ondoren, Osoko Bilkurak, aldeko bederatzi botu (EAJ, EA), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PP), honako akordioak hartzen ditu:

1.- Etxez-Etxeko Laguntza Zerbitzuaren Arautegia haserako izaeraz onartzea.

2.- Arautegia jendaurrean jartzea 30 egunetako denboraldian.

3.- Jendaurreko denboraldian inolako alegaziorik aurketuko ez balitz, onarpen akordioa behin betikoa bihurtuko litzateke, espreski hartutako beste akordio baten beharrik gabe.

XI.- BENEDITARREN LIBURUTEGIA KULTUR ONDARE IZENDATZEKO EUSKO JAURLARITZARI ESKARIA EGITEA.-

Jarraian Lazkaoko Beneditarren konbentuko liburutegia eta artxibategia babesteko asmoarekin, hau kultur ondare izendatua izan dadin Eusko Jaurlaritzari eskaria egitearen akordioa hartzea planteatzen da.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Lazkaoko Beneditarren konbentuko liburutegia eta artxibategia kultur ondare izendatua izan dadin Eusko Jaurlaritzari eskaria egitea onartzen du.

XII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Olaso zinegotziak Alkateari esaten dio badakiela orain dela gutxi Lehendakaria Goierriko alkateekin egon dela eta eskatuko liokeela zinegotziekin ere egotearena ahalbiderratu zezala.

Alkateak erantzuten dio ikusiko duela zer egin daitekeen.

XIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak eta hamar direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.